

HITZA

Beasainen jairik ez dagoela eta arduraz jokatzeko eskatu dute

EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEK, «zentzuz, arduraz, konpromisoz eta gizalegez» jokatzeko eskatu dute argitaratutako idatzi bateratu batean //2



Lazkao

Sebastian Quintanilla lazkaotarrak 260 josteko makinen bilduma osatu du //5



Donostiako XIX. mendeko grabatu onenak, Zumalakarregi museoan

Ormaiztegin Urgullen magalean erakusketa ireki dute, San Telmo museoaren eta foru aldundiaren grabatu bildumak erabiliz //3



INTSEKTUAK BALIOAN JARRIZ

Ordiziako Oiangu parkean Eskaralimania intsektuentzako hotela jarri dute. Intsektuen balioa norainokoa den eta zein funtzio duten ezagutarazi nahi dituzte //4



MINERAL ETA FOSILAK - URRETXU

Urretxuko museo

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO

Maiatzaren 18an, asteartea



Urretxuko udala

ATE IREKIAK - BISITA LIBREA

Aforo mugatua - Aldez aurreko erreserba 943 03 80 88



www.urretxu.eus

Ba al zenekien aurten ere dirulaguntzak daudela:

- Euskara herritik kanpo ikasteagatik
- UEUko ikastaroan parte hartzeagatik
- Merkatarientzat, errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeagatik.
- Web orriak euskaraz ere jartzeagatik.

Zumarragako Euskara Zerbitzua: 943 72 91 53 euskara@zumarraga.eus



Dulce Maria Loinaz kaleko etxebizitza zozkatu dute

GIZARTEA // Dulce Maria Loinaz kaleko babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta esleitu dute. 35. zenbakiari egokitu zaio, 44153151M nortasun agiria duenari. Ordezkoen zerrenda ere zozkatu zuten, dagokiona agertzen ez bada. Etxebizitzarekin batera trastelekua eta garajea ere esleitu ziren.

'Beasaingo Hiria' argazki erakusketa zabalduko dute gaur

KULTURA // *Beasaingo Hiria* argazki lehiaketara aurkeztutako 90 lan onenekin osatutako erakusketa zabalduko dute gaur, 18:00etan, Igartzako Jauregiko erakusketa aretoan. Maiatzaren 30era arte egongo da erakusketa ikusteko aukera. Orduan egingo dute sari banaketa.

Dei misteriotsua erantzuteko azken asteburua izango da

KULTURA // Mikel Susperregi ipuin kontalariaren *Dei misteriotsu bat... eta beste* igandean ezabatuko da Beasaingo Udala-aren Youtubeko kanaletik. 20 bat minutuko istorio laburra da: etxean lasai-lasai egunkaria irakurtzen ari den gizon batek dei misteriotsu bat jasoko du. Istorioko aurrera egin ahal galderak argituz joango dira.

Loinatz jairik ez dagoela-eta, arduraz jokatzeko eskatu dute agintariek

«Ez-jairik' ez dago», diote • «Arduraz», «konpromisoz» eta «gizalegez jokatzeko eskatu dute • Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek babestu dute eskaria

-K. GARRALDA ZUBIMENDI

Beasaingo Udala osatzen duten hiru alderdi politikoek, EAJK, EH Bilduk eta PSE-EEK, beasaindarrei «zentzuz, arduraz, konpromisoz eta gizalegez» jokatzeko eskatu diete atzo argitaratutako idatzi bateratu batean. «Guregatik eta gure inguruan daudenengatik, gehien maite ditugunengatik. Gaixotasunak erakusten digu ahulenak ez ezik, edonor eraman dezakeela».

Marik herrira jaitsi beharko luke gaur; berarekin jai giroa ekarriko luke, eta Loinatz jaiek eztanda egingo lukete. Baina Mari ez da jaitsiko. Beasain festarik gabe geldituko da beste urte batez. Badira bi, jada. «Iritsiko da festa, dantza eta musikaz disfrutatzeako aukera», diote. «Izango dugu aukera Mariren jaitsieran, danborradan, kuadrillen egunean, moztorroen egunean edo barraketan gozatzeko».

«Ez-jairik ez dago», azpimarratu dute. «Hortaz jabetzea herri-ritar, ostalari, merkatari, elkarre, herri-eragile... bakoitzak bere eremuan, guztion erantzukizuna da». Udalak bere eskumenekoak diren baliabideak martxan jarriko dituela iragarri du, hala,



Beasaingo kaleak lasai, festa-giro handirik gabe. K. GARRALDA ZUBIMENDI

«neurriak bete daitezten»: Udaltzaingoa orduetgia luzatu egingo da eta Ertzaintzarekin elkarlanean arituko dira; agintarien sokadantzari ere ez da egingo, hasiera batean iragarrita zegoen arren. Astelehenean umeen eta helduen sokadantzak egingo dira, Gernika pasealekuko frontoian. Eremua hesitu

dute eta edukiera mugatua izango da. Gonbidapenak hartu behar dira alde zaurerik, udal liburutegian. Dantzak ere egokitu egin dituzte eta ez dute bikoterik aterako dantzara.

Baikortasun mezua

Guztien hobe beharrez hartutako erabakia dela nabarmendu

dute, epe luzera onuragarria izango delako. «Hurrengoan behar den moduan Loinatz jaiek ospatzeko moduan izan gaituzten. Guztion ardurak da, norberarengandik hasiz erantzukizun hori hartuz. Denon artean gain-



«Izango dugu aukera Mariren jaitsieran edo barraketan gozatzeko»

dituko dugu», diote. «Alarma egoera bukatzeak ez du pandemiaren eragina baretu. Egoera larria da oraindik eta pertsonak kutsatzen jarraitzen dute, gaixotzen, hiltzen... Txertatze kanpaina aurrera doan arren gaixotasunaren kaltea ez da desagertu». Txertoak aukera berriak ekarriko dituela aipatu dute.

Beasaingo txoko eta bazterrek txukun mantetzeko eta jendar-teak saihesteko ere eskatu dute. Halaber, hartu beharreko segurtasun neurriak gogorazi dituzte: maskara egoki jantzi, distantzia mantendu eta eskuak maiz garbitu.

Beasain fasean aurrera egiteko aukerarik gabe gelditu da

-K. G. Z.

Beasainek 0 eta 1 galdu zuen atzo San Inazioaren aurkako partida. Igoera fasean aurrera jarraitzeko aukerarik gabe gelditu dira ondorioz, hiru punturen faltan bigarren postua bost puntutara baitute. Beasainek hirugarren mailan jokatu du 2021/2022 denboraldian, 20. na segidan.

Igoera fasean bizirik jarraitzeko aukerei eutsi nahi bazieten, San Inazioaren aurkako atzeratutako partida irabazi beharra zuten. Hasi eta berehala jarri ziren markagailuan atzetik, ordea: Beasaingo atzelari guztiei bizka-

rra hartu zien San Inazioko aurrelariak eta Gelbentzu zorte apur batekin gainditu zuen buruz burukoan. Txuri-urdinak gasteiztarrak baino hobeak izan ziren arren, ez zuten golik lortu.

Asteazkenean jokatu dute faseko seigarren azken partida, Anaitasunaren aurka, kanpoan.

Goierrri Gorrik Sestao hartuko du bihar, 18:00etan. Hirugarren garaipena nahi dute jarraian, eta goiko postuetan egonkortu. Azken jardunaldian 0 eta 1 irabazi zuten Barakaldon eta jaitsiera postuak hiru puntutara urrundu zituzten eta Alaves liderraren-

gandik hiru puntutara jarri ziren, partida bat gutxiagorekin.

BKLren udalekuak

Arri BKL Ordiziaren aurkako derbia izango du. Bihar neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan.

Klubak udako kanpua egingo duela iragarri du aste honetan. Hiru txanda egingo dituzte: ekainaren 21etik 25era; ekainaren 28tik uztailaren 2ra; eta uztailaren 5etik 9ra. 2007 eta 2012ko haurrei zuzenduta dago. Ez dago klubeko kide izan beharrik kanpusean parte hartu ahal izateko.

Kike Bigurik barre egiteko gonbita egin die herritarrei

-K. G. Z.

Kike Biguri bakarrizketariak saioa eskainiko du bihar, 19:30ean, Usurbe Antzokian. Luis Zaherarekin batera arituko da, *Chungo* ikuskizunean. «Ordu laurdeneko bakarrizketa bat egingo dut, sarrera modura. Gero Zaheraren txanda izango da, ordubete inguruko bakarrizketarekin», azaldu du Bigurik.

Etxean jardungo duela-eta, gustura dago. «Beti da berezia», aitortu du. «Ondo pasatzera igoko gara oholtzara, gozatzera», gaineratu du.

Bakarrizketa moldatu beharra izan du, laburtu egin du. Muina, ordea, lehengokoa da. «Gainera, areto bakoitzean bakarrizketa apur bat aldatu eginen dut, ez da sekula bera izaten», azaldu du.

Egungo egoerari keinuren bat egingo dion arren, aitortu du nahiago duela COVID-19aren gaia apur bat alboratu. «Ondo pasatzea eta barre egitea behar dugu. Garai gogorak dira eta dibertitu behar dugu».


Sarrerak Usurbe antzokiko leihatilatik edo Kutxabaneko webgunetik eskuratu daitezke.

7.562

KORONABIRUS KASU

Osasun Sailaren datuen arabera, Goierriin 7.562 koronabirus kasu atzeman dituzte, osasun krisia hasi zenetik.

Beste 8 kasu. Beste 8 positibo gehiago atzeman dituzte Goierriin: Zumarragan (3), Beasainen (2), Legazpin (2) eta Idiazabalen (1). Gainontzeko hemezortzi herrietan ez dago kasu berririk.



Koronabirusaren datuek Goierri mailan izan duten garapena. A.A.

COVID-19 kasuak

	ATZO	DENERA		ATZO	DENERA
Altzaga	0	13	Mutiloa	0	15
Arama	0	19	Olaberria	0	80
Ataun	0	217	Ordizia	0	1313
Beasain	2	1559	Ormaiztegi	0	106
Ezkio/Itsaso	0	42	Segura	0	198
Gabiria	0	23	Urretxu	0	622
Gaintza	0	10	Zaldibia	0	310
Idiazabal	1	151	Zegama	0	182
Itsasondo	0	67	Zerain	0	13
Lazkao	0	534	Zumarraga	3	1028
Legazpi	2	903			
Legorreta	0	167			
			GOIERRI	8	7.562

Carlos Vicok tailerra eta hitzaldia eskainiko ditu

ZERAIN // Carlos Vico espezialista kataluniarrak beldurraren inguruko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 20an Zeraingo kultur etxean, 19:00etan. Hilaren 22an, berriz, biziraupen teknikak ikasteko tailerra emango du Aizpea inguruan, 09:00etatik 14:00etara. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da, Legazpiko Ekinhaz zentroan, Mandion, Ostatuan edo 623 390 797 zenbakian.

Arizti-Goiburua aldeko bizilagunekin bilera astelehenean

IDIAZABAL // Idiazabalgo udalak landa eremuetako auzoetako bizilagunekin bilerak egin eta haien beharrak ezagutzeko prozesua jarri du martxan. Astelehenean Arizti-Goiburua aldeko bizilagunekin egingo dute bilera, Bentatxikin, 17:00etan. Joan den astelehenean egin zuten lehenengoa, Urtsuaranen. 943 18 71 00 telefono zenbakira deitu dezakete herritarrek zalantzak argitzeko.

Trakzio Mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

EZKIO-ITSASO // Ezkioko Udalak zergadun guztiei zabaltzeko oharra argitaratu du. 2021 urteko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordaintzeko epea zabalik dago: banketxean helbideratutako erreziiboak ekainaren 30ean emango dituzte, eta helbideratu gabeak, berriz, maiatzaren 17tik ekainaren 30era egin beharko dituzte.

Zumalakarregi Museoak Donostiako estanpen erakusketa berria ireki du

San Telmo museoarekin eta aldundiarekin elkarlanean antolatu dute • Urriaren 31ra arte egongo da ikusgai • Donostiak izan duen garapen urbanistikoa islatzen du erakusketak, besteak beste

-LAIDA GOIBURU Ormaiztegi Zumalakarregi Museoak Donostiako estanpen erakusketa berri bat inauguratu du. *Urgullen magalean* izeneko erakusketa da, eta Donostiako San Telmo museoarekin elkarlanean garatu dute. Atzo izan zen irekiera, eta bertan izan ziren Mikel Alberdi museoako artxibo arduraduna, Maria Jose Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria, Jon Enrique Galarza Ormaiztegiako alkatea eta San Telmo museoako ordezkaria.

San Telmo Museoaren, aldundiaren eta Zumalakarregi museoaren pieza ezberdinek osatzen dute erakusketa. «Guk aukeraketa bat egin dugu eta Goierriara ekarri dugu XIX. mendeko grabatuei buruzko harribitxi hau», azaldu du Alberdik. Bi zati ditu erakusketak: irudiak, batetik, eta hausnarketarako espazioa, bestetik. Izan ere, irudietan islatzen diren XIX. mendeko hainbat gai ere jorratzen ditu. Tartean, Donostiak izan duen garapen urbanistikoa.

Irudien garapenaren eta zabalbundearen inguruko hausnarketa ere bultzatzen du erakusketak: «XIX. mendean zeuden irudi bakarrak grabatuak ziren; XVIII. mendera arte elize-



Mikel Alberdi museoan, atzo, erakusketa berria aurkezten. L. GOIBURU

Irudiek izan duten hedapenari buruzko hausnarketa ere bultzatzen du

tara joan behar zuten irudiak ikusteko, eta harrezkero zenbat irudi pasatzen diren gure begietatik, horren inguruko hausnarketa ere bideratu nahi genuke».

Telleria kultura zuzendariak museoaren eta aldundiaren arteko elkarlana azpimarratu ditu: «Horrek ematen du indarra proiektuak sustatzeko eta etorki-

zunari begira beste hainbat gai jorratzeko». Urriaren 31ra arte egongo da ikusgai.

Aktualitateari begirada

Ilustrazio digitalari erreferentzia egiteko, Eli Ruperez artistak eginiko pieza inauguratuko dute ekainean, eta Irati Otamendi arkitektoak hitzaldia eskainiko du, Donostiako garapenaren eta Ormaiztegi bide herri bezala izan duen garapenaren arteko paretokasunaren inguruan. Iraillean, ondo bidean, Ramon Lobo kazetariak ere hitzaldia emango du.

Ezkiok eta Itsasok gastu partekatua izango dituzte %26,74an**-L. GOIBURU** Ezkio-Itsaso

Ezkioko Udalak eta Itsasoko batzordeak aurrekontu bereiztuak izango dituzte aurten: partekatutako gastu eta sarrerak izango dituzte %26,74an, hau da, biztanleriaren proportzioan. Langileen soldatak, eskola, haurtzaindegia eta mediku etxearen mantentimendu gastuak eta inbertsioak, eta biltegiarekin lotutakoak izango dituzte amankomunean. Itsasorako aurrekustitako inbertsioak, berriz, lau proiektu nagusi izango dira: natur ondarearen proiektua, base-rietarako bideen konponketa, ganbarako areto balioaitzerako ekipamendua eta auzo udala sortzeko parte hartze prozesua.

Itsasoko batzordeak herri batzarra izan zuen maiatzaren 8an, eta bertan Ezkioko ordezkari-ekin adostutakoak azaldu zituzten. Aurrekontuez gain, auzo Udalaren inguruan emandako pausoak ere zabaldu dituzte. Maiatzaren 3an egin zuten bi herrietako ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera Itsason auzo udala sortzeko aukerari buruz. Izaera juridikoari dagokionez, aurrera egin litekeela ondorioztatu dute egindako azterketaren ondoren. Biztanleriaren baldintza, aldiz, Batzar Nagusietako alderdiekin landuko dute Foru Arauaren aldaketa adosteko. 6-8 hilabetearen Foru Arauaren aldaketa onartzea eta auzo udala sortzeko espedienteak eta galdeketa egin ahal izatea aurrekustitu dute.



Eskaralimania intsektuen hotela jarri dute Ordiziko Oiangu pakean. A. VIERBÜCHER

Eskaralimania hotela

Ordiziako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean sortu du intsektuen hotela • Helburua da, jendeak intsektuen garrantzia ezagutzeko eta haiekiko zaletasuna sortzeko

-A. VIERBÜCHER *Ordizia*
Intsektuentzako Eskaralimania hotela zabalik dago, Ordiziako Oiangu parkean. Proiektu honen helburua kakalardoak, armiamak, tximeletak eta sorgin-orratzak bertan instalatzea da, eta bide batez, intsektuen arloan trebatzea herritarrek. Ekimena Aranzadi Zientzia Elkartek eta Ordiziako Udalak elkarlanean egin dute.

Eskaralimania intsektuentzako hotelaren proiektu honen arduradun nagusia Beatriz Diaz izan da. Aranzadi zientzia elkarteko ikertzailea da Diaz, tomologia departamentuan. «Eskaralimania izena, hitz joko bat da; hotel honek bilduko dituen intsektu desberdinei egiten die erreferentzia, eta bestalde, jendearengan zaletasun bat sortu nahi horri keinu bat ere bada», hasi da kontatzen Diaz bera. «Oso garrantzitsua da jendeak intsektuen balioa norainokoa den eta zein funtzio duten ezagutzeko», gehitu du. Horrelako ekintzekin «herritarrek intsektuen mundu honetara gerturatzeko bilatzen dugu».

Hotela betetzeko

Egurrezko etxetxo baten itxura du hotelak, eta barruan, hainbat gelatxo ditu. Oianguko sagastian dago kokatuta eta edonor gerturatu daiteke bertaraino. «Mo-



Oianguko Txiringitoan agertu zen Saturnia Pyri sitsa. A. VIERBÜCHER

mentuz hutsik dago, gelatxo bakoitza elementu desberdinekin bete beharko da, intsektuak etor daitezzen eta bertan gera daitezzen», argitu du Diazek.

Horretarako, datorren maiatzaren 22an, Dibertsitate Biologikoaren Nazioarteko Egunean, hotelak intsektuak erakartzeko beharrezko material guztiak gerturatu eta jarriko dituzte, «makiltxoak, hostoak, enbor zatia, ... birziklatutako materialak izango dira».

Herritarrek ere parte hartu ahaliko dute ekintza horretan. Izen ematea hurrengo egunetan zabalduko dute.

Eguneko bitxikeriak

Intsektuen hotelaren inaugurazioaren aitzakian Oiangura egindako bisitak, hainbat bitxikeria utzi ditu. Izan ere, egun argitan

ikustea batere ohikoa ez den sitsa agertu da Oianguko Txiringitoaren ondoan. Aranzadi zientzia elkarteko kideak bertan zuek dela aprobetxatuz, intsektu ikusgarri horren inguruko xehetasunak eman dituzte: «Bere izen zientifikoa, Saturnia Pyri da eta Europan aurki daitekeen sitsa handiena da». Oiangun ikusi ahal izan zenak, 10 zentimetro inguruko zabalera zuen, eta Aranzadiko kideek esandakoaren arabera, 20 zentimetrokoak ere ikusi dituzte. «Ez da ohikoa horrelako sitsa ikustea gauez bizi direlako, egun ezkutuan egoten dira».

Beste bitxikeria bat ere izan zen; Txiringitoaren estalpean, liztor asiatiakoaren kabi primario bat agertu baitzen. Segituan deitu zuten Babes Zibilera kabia ken zezaten.

Play Off-en final laudenetan Bartzelona hartuko du Ampok, etxean

Azken asteetako etenaren ondoren, Play Off-en lehia igandean hasiko du Ampo Ordiziak, Altamira zelaian 12:00etan
• Taldea «prest» dagoela esan du Marotiasek

-A. VIERBÜCHER

Ordizia
Azkeneko asteburuetako etenaren ondoren, Ordizia Rugby Elkarteko Ohorezko Mailako taldea prest dago, denboraldiko azken txanpan sartu eta Play Off-er hasiera emateko. Final laudenetako partidari, Bartzelona izango dute aurrez aurre. Igandean izango da partida, etxean, Altamira estadioan, 12:00etan.

Zortzi talde izango dira Play Off-en lehian, Ohorezko Mailako ligako sailkapen nagusian, lehen zortzi postuetan geratu diren taldeak, hain zuzen ere: Alcobendas, Quesos Entrepinares, El Salvador, Ampo Ordizia, Bartzelo-

na, Universidad de Burgos, Complutense Cisneros eta Ciencias Universidad Pablo de Olavide.

Taldea prest

Iñigo Marotias entrenatzaileari hitz batzuk kendu dizkio egunkari honek, igandekoaren aurretik, taldea nola dagoen jakiteko: «Aspaldi etxean jokatu gabe gaudu, urte guztia Play Off-etara begira pasa dugu, ...gogo handia dugu iganderako, eta igandeko prestatuta sentitzen gara». Igandean Bartzelona hartzeko gogotsu eta animoak gorenean dituzte, beraz.

Eneritz Furyak-en kontzertua atzeratu egin dute

ORDIZIA // Sagarrock musika zirkloaren barruan Eneritz Furyak-en kontzertua antolatuta du Ordiziarrocekek. Maiatzaren 16a, igandea zen data, baina kontzertua atzeratu egingo dela jakinarazi zuen atzo antolakuntza taldeak. Data berria jakin bezain pronto jakinaraziko dute. Kontzertua Tximista sagardotegian izango da eta sagardotegiko menuarekin lagun daiteke musika entzunaldia. Sarrera batzuk eskuragarri daude oraindik Ordiziarroceken webgunean.

Korrontzi taldearen kontzerturako sarrerak eskuragarri

LEGORRETA // Korrontzi taldeak kontzertua egingo du, igandean, hilak 16, Herri Antzokian, 18:00etan. Sarrerak udal liburutegira deituz (943 08 50 50), epostaz (kultura@legorreta.eus), eta watsapez (747 428 260).

Zergen ordainketa epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era

ORDIZIA // Datorren maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean, 2021eko ekitaldiko Landa Zein Hiri izatera Ondasun Higiezinen zergen ordainagiriak. Edozein aurrezki Kutxa edo Banketxetan egin daiteke ordainketa. Helbideratutako zergadunen ordainagiriaren kasuan ekainaren 15ean kargatuko dira. Adierazitako epea bukatu ondoren, premiamentuzko prozedura exekutiboari ekin- gongo zaio.

Pentsio duinen alde elkarretaratzea deitu dute Ordizian

ORDIZIA // Datorren astelehenerako, hilak 17, elkarretaratzea deitu dute Pentsio publiko duinen alde, Goierriko Pentsiodunek. Herritar guztiak gonbidatuta daude elkarretaratze honetan parte hartzera.



Lazkaoko Sebastian Quintanilla, bere bildumako Alfa, Alicia eta Longford josteko makina banarekin. AIMAR MAIZ

Sebastian Quintanilla lazkaotarrak 11 urte daramatza josteko makinak biltzen, konpontzen eta ondare horri distira ateratzen. 260 bat ditu, oso bitxiak tartean. Halakoentzat arreta eskatu du.

Ondarea tarratatu ez dadin, josten

–AIMAR MAIZ Lazkao

Eskulangintzarako eta ikasteko betidanik izan duen gogoa josteko makinetan gorpuztu du Sebastian Quintanilla lazkaotarrak, beste ezertan baino hobeto. Garai bateko makinak bilduma oparoa osatu du, duela 11 urte murgildu zenetik.

Mari Cruz Santamaria ama zenaoren oroitza penak jarrarazi zion josteko makinetan arreta. «Ama beti ikusi izan nuen josten, baita amona ere. Etxean sei senide ginen, eta amak asko josi behar izan zuen. Hil zenean, haren josteko makina gordetzeko ilusioa nuela, eta anaiei eskatu nien neuretzat nahi nuela», gogoratu du Quintanillak, makinaz beteriko garajearen.

Tresna edukitze soiletik, erabiltzera pasatu zen, ordea. Beasaingo Asmube emakume elkartearen jostekintza ikastaroetan hiru urtean ibili zen. Adiskide onak egiteaz gain, harra piztu zion: makinak mekanika ikertu, ulertu eta konpondu; ekizleek berri jakin, historia arakatu... Eta han-hemenka herdoilak jota zeuden edo zaborretara zihozaznak erosi eta berreskuratu.

«Mekanika betidanik gustatu izan zait, beti izan naiz eskulan-

gilea, inbentoa egiten, erreminta artean, gauzak nola hobetu... Burua beti horretan ibili dut».

Guztira, 260 bat dauzka. Gehienak Zamora hirira (Espainia) eramanak dauzka; 12 urtetik 16ra han ikasi zuen batxilergoa, eta hiriaz maitemendiuta, hara bizitzera joatekotan zen. Bizitzaren aldaketek, ordea, planak aldarazi, eta Lazkaora ekarriko ditu orain denak.

Makina bitxiak

Benetako museoa dauka josteko makinak arloan, berak dioenez Luis de Pedro gernikar bilduma-

Jakin-mina eta biltzeko irrika, hamaika arlotan

Aita filatelikoa zuen Sebastian Quintanillak, eta bildumazale-tasuna itsatsi zion. «Nire arazo da berrogei mila gauza gus-tatzen zaizkidala», aitortu du. Josteko makinez gain, objektu eta bilduma asko dauzka.

Garajearen gorderik daukan Fiat 600 Jungla auto txikia, adibidez. Estatu osoan sei bakarrak daude. Udarako errepide-ra aterata nahi du. Edo Vaticano-ko egunkariaren liburikiak, urteka antolatuta, latinez eta

zalearen «zapata zolara» ere iristen ez den arren; milatik gora dauzka hark.

Baserrietan atzera utzitakoak, leku faltagatik etxeetatik aterata nahi dituztenak, eta ezagunen bidez iristen zaizkionak jasotzen ditu. Azkenaldian, Interneten ere asko erosi ditu. «Pieza garrantzitsuenak gutxienean espero duzun lekuan eta pertonekin suertatzen zaizkizu».

Sektoreko entziklopedia bat da Quintanilla. Makina bakoitzaz, marka eta etxe bakoitzak daki zerbaite. Eibarko Alfa, Elgoibarko Sigma, Singer mitikoa, Re-

italieraz. «Orri osoko argazki zahar asko daude, garai bateko autoenak eta».

Beste pieza bat, 1902ko gramola da, zurezko tutu eta guzti. Arbelezko 250 bat disko ere baditu, harentzat. «30 bat entzualdi irauten zuen, gastatu egiten baitzen. Orratza aldiro aldatu beharra dago, burua kamustu eta diskoa jan ez dezan». Azkena lortu duen «altxorra», 1928ko irudi proiektore bat, Cinexinen aitzindaria. Pelikula paperezkoa da. «Jaso ez banu, zaborretara zihoina». Historiaren lehena geroarekin josten ari da Sebastian Quintanilla, makinetatik harago ere.

frey galizarra, Bartzelonako La Rapida fabrikaren ekoiztiko Wertheim alemaniarra... «Gipuzkoan Alfa eta Sigma oso garrantzitsuak eta puntakoak izan ziren. Izugarrizko kalitatez lan egiten zen lehen hemen. Harri-garria. Niri ez eman 100-120 euroko plastikozko horiek... Urtero ehunka joaten dira zaborrera».

Bilduma guztitik, Eibarren egindako Alicia markako txiki bat ateratu du. «Jostailu gisa saltzen zen, familia aberatsetako neskatuentzat. Baina benetan josten du».

Euskal museo bat falta

Euskal Herriak josteko makinak sortzen izan zuen aitzindaritzara, ordea, ahaztuta dagoela penatu da Quintanilla. «Erakundeek ez dute ezer egin, eta egin beharko lukete. Jendeak ez du ezer ezagutzen josteko makinez. Museo iraunkor bat behar da, bestela, hauek denak galdu egingo dira gutxi barru».

Ondarea direla gogoratu du, hala baitira: materiala, eta sentimenduzkoa: «Amaren makina hartu, eta josten hasten naizenean, oraindik ama aurean daukaldala uste dut. Sentitu egiten dut barruan. Oroitzapen politik dira, eta buruan egoten dira. Hori bizigaita da».

Ataunen udaleku irekietarako izena eman daiteke

ATAUN // Ataunen ekainaren 21etik uztailaren 23ra egingo dituzte udaleku irekiak. 09:45etik 13:00etara ariko dira, eta nahi duenak 08:00etatik zaintza zerbitzua izango du. 2009 eta 2017 urte artean jaiotako haurrentzat da (3-12 urte bitartekoak). Bi txanda aukera litezke: lehen hiru asteak, edo osorik (5 aste). Izena maiatzaren 21era arte eman behar da, udaltxearen edo ataunaisia@ataun.eus-en.

Baserritarren bazkaria eta umeen jolasak Gabirian

GABIRIA // San Isidro eguneko juntadizoa antolatu dute Gabiriako baserritarrek. Bazkaria egingo dute bihar, Korta jatetxean. Joan nahi duenak hara deitu behar du izena emateko. Bestetik, Udaberri Kulturalean, igandean haurrentzako jolasak izango dira, plazan, 10:30ean. Bihar, Legazpiko Gazte Bandak kontzertu-toka du, plazan, 17:30ean.

Agortu dira Zaldibiako Mendi Lasterketako tokiak

ZALDIBIA // Hiru eguneko bete da Zaldibiako 2. Mendi Lasterketako izen-ematea. Ekainaren 19an izango da karrera, 27 kilometroko ibilbide bakarrean. Asotelehenean ireki zuten inskripzioa, eta atzo jakinarazi zuten 300 lekuak bete direla.

Iragarki laburrak

Errentan eman

Pisua. Donostiako Antigua auzoan pisua alokatzen da uztailla eta/edo abuzturako. Hondartzatik gertu. 5 laguntzako oheak. Sukaldea erabat ekipatua. Bi komun. Telebista eta wifia. Aparkaleku pribatua kotxe baten-tzat. 646 124 980 (Mertxe).

Salgai

Pisua. Pisua saltzen da Ordizian, Domingo Unanue kalean. 3 gela, sala, sukaldea eta bi komun. Dena kanpoaldera. 87 m2. Gara-jea itxia. 228.000 euro. 630 171 944.

Zumarragan genero indarkeriaren aurkako kanpaina prestatu dute

Udalak lehiaketa bat antolatu du, genero indarkeriaren prebentziorako kanpainan erabiltzeko • Irudia herritarren artean banatuko diren 2.000 poltsetan inprimatuko da

-ASIER ZALDUA Zumarraga Zumarragako Udalak genero indarkeriaren prebentziorako kanpaina antolatu du, Estatu mailako itunaren eskutik jasotako diru-laguntzarekin eta Hezibide enpresaren aholkularitzarekin.

Irudi bat aukeratzeko lehiaketa antolatu du eta irudi hori gaierekin zerikusia duten ekintza guztietan erabiliko du. Gainera, poltsak eta informazio txartelak banatuko ditu.

Egitasmo hau atzo aurkeztu zen, kultur etxean. Ekitaldian Mikel Serrano alkateak eta Arantxa Gonzalez zinegotziak parte hartu zuten. Lehiaketa bidez hautatuko den irudiaren helburua herritarrak sentsibilizatzea da.

Lehiaketa honetan edonork parte har dezake. Parte hartzaile bakoitzak hiru lan aurkeztu ditzake, gehienez. Lehiaketaren gaia genero indarkeriaren eta haren inguruko adierazpen guztien deuseztapenerako konpromisoa da eta irudiak honako testua eraman behar du: *Zumarragak ez du eraso sexistarik onartzen.*

Formatua eta neurriak

Edozein eratako lanak onartuko dira: collage-a, pintura, argazkia... Lanen neurria 30x40 zentimetrokoa izango da (bertikalean) eta lan guztiei kartoi mehe bat jarriko zaie atzeko aldean.



Mikel Serrano alkateak eta Arantxa Gonzalez zinegotzia, atzoko prentsaurrekoan. AZ

Lanak inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Hilaren 31ko 13:30ak baino lehen aurkeztu behar dira Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean. Saria 300 eurokoa izango da.

Saritutako lana telazko poltsetan inprimatuko da eta hauek genero indarkeriaren aurkako kanpainaren barruan banatuko dira. Zumarragako Udalak 2.000 poltseta inguru banatuko ditu zumarragarren artean, ekainaren

amaieran edo uztailaren hasieran.

Irudia txartel batzuetan ere erabiliko da. Txartel horietan genero indarkeria kasuetan zer egin behar den azalduko da. Txartelak poltsekin batera banatuko dira.

Bestalde, lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketak egingo da, Zelai Arizti kultur etxeko sarreran.

Lehiaketaren oinarriak Zuma-

ragako Udalaren webgunean eta sare sozialetan argitaratu dituzte eta ikastetxeetara helarazi dituzte.

Gonzalezek genero indarkeriaren aurkako txerto onena tolerantzia eza dela aipatu zuen. Serranok oraindik ere urtero indarkeria kasu asko salatzen direla gogoratu zuen. Hori dela eta, biek herritarrak udalak antolatutako lehiaketan parte hartzea animatu zituzten.

Azterketa garairako ikasgela irekiko da bihar Zumarragan

ZUMARRAGA // Zumarragako Udalak bihar irekiko du azterketa garairako ikasgela. Asteburuetan irekiko da, ekainaren 6a arte: larunbatetan 16:30etik 20:30era eta igandetan 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era. Hitzordua hartzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, astero liburutegira deitu edo idatzi behar da. Telefono zenbakia 943 72 31 56 da eta Whatsapp zenbakia 687 236 933.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, hilaren 29an Urretxun

URRETXU // Maiatzaren 29an Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izango da Urretxun. Bi saio egongo dira: 16:30ean eta 18:30ean, Ederrena pilotalekuan. Urtarrilean bertan behera gelditu zen emanaldia denez, orduan erositako sarrerekin eta iazko bonuekin frontoira sartu ahal izango da. Gainera, 160 sarrerara salgai jarriko dira (80 saio-ko): maiatzaren 24tik 28ra, Urretxuko kultur etxean.

Hiri eta landa izaerako ondasun higiezin zerga

ZUMARRAGA // Hiri eta landa izaerako ondasun higiezin zergaren ordainketa egiteko epea ekainaren 30era bitartean egongo da zabalik. Helbideratutako ordainagiriak kontu korrontetik kobratuko dira. Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako helbidera bidaliko dira eta ordainketa bankuan egin behar da.

Hilberriak



Amaia Ibarbia Urrutia

Berrobiko txoko guztietan jarraitukoñeu elkarrekin, beti ta betiako, matte haunau.

Maribi, Marijo eta Guru.

BERROBIN, 2021eko maiatzaren 14an

HITZA, Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

HITZA hitzak
TXIKIA (82mmX64mm): 100 € Hitzakideentzat 50 €
HANDIA (124mmX64mm): 150 € Hitzakideentzat 75 €
ESKERTZA (38mmX64mm): 50 € Hitzakideentzat 25 €
ESKERTZA (Eskela jarri baduzu): 10 € (Eskela jarri baduzu): 10 € bez barne

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu. goierri@hitzza.eu / Tel: 943 16 00 56
GOIERRIKO HITZAN jarrita, Urola Kostako Hitza, Tolosaldeko Atarian eta goierri.hitzza.eu webgunean

Pandemia garaian poliziaren jokaera aztergai Gaztetxean

LEGAZPI // Legazpiko Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta, hitzaldia egingo dute gaur ostirala, Gaztetxean, 19:00etan, *Indarkeria poliziala eta aholkularitza juridikoa* izenburuarekin. Pandemia eta krisi testuinguruari poliziak nola jokatzen duen, zein funtzio betetzen duen, haren aurrean herritarrek zein eskubide dituen eta aurre nola egin dakioken aztertuko dute, besteak beste.



Xabi Zurutuza pilotu gaztea. T.M.

Xabi Zurutuza hirugarren doa Europako txapelketan

LEGAZPI // Hawkers European Talent Cup txapelketako lehenengo bi proben ondoren, sailkapen orokorrean hirugarren postuan doa Legazpiko Xabi Zurutuza moto pilotu gaztea. Apirilean jokatu zen Estorilen (Portugal) txapelketaren lehen txanpa, eta bigarrena pasa den asteburuan, Valentzian. Azken zirkuitu honetan hirugarren eta laugarren egin zuen bi lasterketetan, hurrenez hurren. Hurrengo proba ekainaren 13an izango da, Bartzelonan.

Santikutz klasikoaren eta ezpata-dantzaren argazkiak, Interneten

LEGAZPI // Udalak bere web orriari zintzilikatu ditu maiatzaren 1eko Santikutz Klasikoaren txirindularitza probako argazkiak (79 guztira), eta maiatzaren 3ko ezpata-dantza ekitaldiko irudi bilduma (138 argazki). Irudi guztiak Josu Altzelai argazkilaria legezpiarrarenak dira, eta *legazpi.eus* webgunean ikus daitezke.



Legazpiko Eit point taldeko neskek Gazte-txokoan bideoa grabatzeko unean. LEGAZPIKO UDALA

Legazpiko eta Urretxuko gazte txokoetan lantzen ari den 'Beat-eroak', amaitzean

Rap doinuekin uztartuta, euskara modu dibertigarrian lantzea da helburua • Proiektu pilotua da, 12 eta 15 urte bitarteko 12 gaztek parte hartu dute • Gaur igoko dituzte bideoak sare sozialetara

- TERE MADINABEITIA

Rap abestiak sortu dituzte, eta bideoak ere grabatu dituzte. Legazpiko Nerabeentzako Zerbitzua eta Urretxu-Zumarragako Gazte Bidean lantzen ari diren Beat-eroak proiektu pilotua azkenetara iritsten ari da. Gaur sare sozialetara igoko dituzte bi bideo. Ondoren, Foru Aldundiak programaren balorazioa egingo du eta horren arabera erabakiko du Gipuzkoako Gaztematika sareko gainerako gazte txokoetan eta gaztelekuetan landuko den ala ez.

Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako gazteak aitzindariak izan dira euskararen lanketa eta rap doinuekin uztartzen dituen ariketa berri honetan. Partaideek ondo igaro dute prozesuan, eta orain emaitzen zain daude.

Bideoak gaurtik ikusgai

Rap musikaren bitartez, gazteen euskara zeharka eta era dibertigarrian lantzea da Beat-eroak proiektuaren helburua. Hainbat fasetan garatu da, eta partaideak errekrutatzen abiatu zen, udaberriarekin batera. Legazpiko Nerabeentzako Zer-



Urretxuko Gazte Bidean zerbitzuko beat-eroak. GAZTE BIDEAN

bitzuan Eit Point izenpean bildu ziren 12 urteko zortzi neskek eman zuten baiezkioa. Urretxuko Gazte Bidean zerbitzutik, 13 eta 15 urte bitarteko lau mutilek erantzun zioten deialdiari.

Neskek berdintasunaren gaia aukeratu zuten lanketarako, eta mutilek, honako hau: gazteak izateagatik jasan behar duguna. Horien inguruan, rap eritimoaz lagundutako abesti bat osatzeko hitzak sortu behar zituzten. Ondoren, abestia bera interpretatu eta bideoan jaso behar zuten.

Prozesu guztian, Iametzta komunikazio enpresaren laguntza teknikoak izan dute gazteek, eta azken fasean, bideoaren grabaketan, luxuzko kolaborazio bat ere bai: rap munduan aritutako Donostiako Telmo Trenor beat-maker musikari ezagunarena.

Bi abestien bideoak osatuta daude, eta prest ikusgai jartzeko. Gaur bertan igoko dituzte sare sozialetara Legazpiko Nerabeentzako Zerbitzuak eta Gazte Bideanek. Protagonistak urduritatu ezin eutsi daude.

Olazabal institutuko baratzea txikitu dutela jakinarazi du udalak

- T. MADINABEITIA Legazpi

Legazpiko Udalak jakinarazi duenez, Olazabal institutuko baratzea txikitu egin dute aurreko asteburuan. Astelehenean klasea itzultzean erabat suntzitsuta aurkitu zuten ikasleek eta irakasleek. Udalak gaitzetsi egin du ekintza hori, eta «persona batzuk horrelako kalteak egitera eraman ditzaketan arrazoiei buruzko gogoeta egitera» gonbidatu du.

Eskola baratzea iazko azaroan jarri zuten martxan Olazabalen, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Hauspoa proiektuaren esparruan, eta zentroko 12 ikasleren partaidetzarekin. Baratzea zeharkako ikaskuntzarako tresna gisa erabili dute, eta azken hila-bete hauetan tipulak, baratxuriak, ilarrak eta babarrunak landatu eta zaindu dituzte.

Baina astelehenean instituturara joan zirenean hutsik aurkitu zuten eremua, landare guztiak sustraitatik aterata, eta barazkien ordez kartoiak eta botilak aurkitu zituzten.

'Kalitatezko konposta zuri esker' kanpaina datorren astean Legazpin

- T. MADINABEITIA Legazpi

Datorren ostegunean eta ostiralean iritsiko da Legazpira Sasieta Mankomunitatea garatzen ari den *Kalitatezko konposta zuri esker* kontzientziazio kanpaina. Informazio postu bat jarriko dute karpa batean, eta Gipuzkoan bildutako materia organikorekin egindako konposta banatuko dute bertan, doan. Konposta jasotzeko, edukiontzi marroiko txartela aurkeztu beharko dute herritarrek.

Ostegunean, hilak 20, Laubideko kale nagusian jarriko dute karpa 16:00 etatik 20:00etara, eta ostiralean, hilak 21, Kale Nagusian 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Goierriko

HITZA

Ostirala

2021eko maiatzaren 14a

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-1052-04
Zuzendaria: Iñaki Gurrutxaga
Egoitzak: Beasain, Oriamendi, 32. 943 16 00 56. Eposta: goierri@hitza.eus
Urretxu: Iparragirre, 11. 943 72 34 08
Editoreak: Arkaitz Apalategi eta Loinaz Agirre
Kudeatzailea: Josu Inigo
Publizitatea: jizagirre@hitza.eus 607 530 424.
Beasain: 674 034 344. beasain@hitza.eus.
Herri txikiagoak: 647 319 750. lazkaok@hitza.eus / 647 319 753. lgoiburu@hitza.eus
Ordizia: 647 319 749. ordizia@hitza.eus
Urretxu-Zumarraga: 674 034 342. urretxu@hitza.eus / zumarraga@hitza.eus
Legazpi: 647 319 752. legazpi@hitza.eus

Goierriko Hedabideak S.L.ko kideak:



Goierriko beste 15 eragile



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Eskio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Legazpi, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943 30 30 35

Goiza



Arratsalde



Temperatura

V 14°
A 6°

Bihar

Goiza	Nahasia
Arratsalde	Euria
Beroena	16°
Hotzena	10°

goierri.hitza.eus

Agenda

Kultura

Zinema

ATAUN. Herri antzokia.
'La familia que tu eliges'
Igandea 19:00
'Mr. Link'. Haurrak. Euskaraz
Igandea 16:30

LAZKAO. Areria.
'Ilargi guztiak'. Euskaraz
Larunbata 19:00
Igandea 19:00
Astelehena 19:00

LEGAZPI. Latxartegi.
'Dehesa, el bosque del lince ibérico'. Zine-kluba
Ostirala 19:00
'Tom eta Jerry'. Haurrentzat. Euskaraz
Larunbata 17:00

ORDIZIA. Herri Antzokia.
'Faust'. Opera
Ostirala 19:00
'El fotografo de Minamata'
Larunbata 19:00
Igandea 19:00
Astelehena 19:00
Asteartea 19:00

ZUMARRAGA. Zelai Arizti.
'Otra ronda'. Zine-kluba
Ostirala 19:00
'Ilargi guztiak'. Euskaraz
Larunbata 19:00
Igandea 19:00
Astelehena 19:00

Antzerkia

Beasain. Gaur, 19:00etan, Frontona antzezlana, Gernika pasealekuko pilotalekuan.

Beasain. Larunbatean, 19:30ean, Luis Zaheraren *Chungo* baka-rrizketa saioa, Usurbe antzokian. Aurkezlea: Kike Biguri.
Olaberria. Gaur, 21:30ean, *Evaren alabak* antzezlana, plaza txikian.

Bisita gidatuak

Ordizia. Larunbatean eta igandean, 10:30ean, *Ordizia, sagastitik sagardotegira* bisita gidatua, D'elikatzetik abiatuta.

Dantza

Beasain. Astelehenean, 12:00etan, umeen sokadantza, eta 18:00etan, helduen sokadantza, Gernika pasealekuko frontoian.

Erakusketak

Beasain. Jorge Manriqueren *Madagaskar* argazki erakusketak. Aterpe tabernan. Maiatzaren 27ra arte.

Beasain. Gaur, 18:00etan, *Beasaingo Hiria* argazki lehiaketaren erakusketaren irekiera, Igar-tza Jauregioko erakusketak aretoan. Maiatzaren 30era arte.

Legazpi. Haurren marrazki lehiaketan saritutako lanen erakusketak, kultur etxean. Gaur da azken eguna.

Ordizia. Josu Maroto eta Ekaitz Goikoetxearen *Balio erantzia* erakusketak, Barrenan. Gaur da azken eguna.

Urretxu. Gaur, 19:00etan, Josu Marotoren *Masala Soul Project* erakusketaren eta liburuaren aurkezpena, Labeagan. Erakusketak Juan de Lizarazun aretoan ikusgai maiatzaren 30era arte.

Zerain. Iñaki Mezquitaren *Bizi ezkutua*. Goierriko kronika ikussezina erakusketak, kultur etxe-

Irudia Beasain



Kultur eskaintza oparoa jai garaiaren usainean

Loinatz jaien lehen asteburua zatekeen datorren hau, baina jakina denez, festarik ez da izango. Hala ere, asko dira hiru-lau egunotan egingo diren kultur emanaldiak. Helduentzako bi antzezlana, haur-entzako bi emanaldi -musika ikuskizun bat eta pailazoak-, jazz kontzertu bat, eta haur eta helduen eskudantzak. Usurbe antzokian eta Gernikako pasealekuko frontoian dira emanaldiok. Saio guztietarako gonbidapenak aurrez hartu behar dira udal bibliotekan.

an. Maiatzaren 31ra arte.
Zumarraga. Arte Ederretako udal eskolako ikasleen erakusketak, Zelai Ariztin. Maiatzaren 28ra arte.

Haur ikuskizuna

Beasain. Larunbatean, 18:00etan, *Musikarium* haur-entzako antzerki-kontzertu didaktikoa, Gernika pasealekuko frontoian.

Ikus-entzuzkoa

Zerain. Gaur, 18:30ean, Arizt

Ganboaren *Bideak* dokumentalaren emanaldia, kultur etxean.

Musika

Ataun. Larunbatean, 11:30ean hasita, Desgariaen taldearen kontzertua, Oargin. Aurrez, kulturaz eta arteaz hitzaldia.

Beasain. Igandean, 19:00etan, *Tutti Frutti Jazz* kontzertua, Gernika pasealekuko frontoian.

Lazkao. Gaur, 19:00etan, *Herriko artista gazteak, plazara* ekimena, Arerian. Partaideak: Lazkao Txiki musika eskolako kon-

boak, eta Laida Ruiz, Iker Gutierrez eta Eli Bujanda.

Legorreta. Igandean, 18:00etan, Korrontzi taldearen emanaldia, Herri Antzokian.

Legazpi. Igandean, 19:00etan, Itziar Urbietako organo jotzailea, elizan. VII. Organo zikloaren lehen emanaldia.

Pailazoak

Beasain. Igandean, 17:00etan, Takolo, Pololo eta Elena madalenaren *Pailazo izatearen magia* ikuskizuna, Usurbe antzokian.

Agurrak

Sua



Zorionak! Ondo pasa eguna familia guztiaren partetik! Muxu handi bat!

Guardiako farmaziak

Gaur

Beasain. Egunez: Elozegi. Kale Nagusia, 8. 943 88 02 32.
Ordizia. Gazez: Jauregi. Andre Mari, 2. 943 16 09 49.
Urretxu. Egunez: Menendez. Gernikako Arbola, 3. 943 72 01 62.
Zumarraga. Gazez: Roldan. Euskadi plaza, 4. 943 72 11 64.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.

Zozketa



Jose Agustin Jauregi (Beasain)

Hitza jarriko da harremanetan.

SASKIA

IZTUETA SASKIA



Esnetan bizi gara
iztueta.eus

Egin harpidedun

maiatzaren 31 baino lehen, eta jaso artzain gazta erdia



hitzakide@hitza.eus-943 30 30 35

goierri.hitza.eus/hitzakide

647 319 754



BENETAKO ARTZAIN GAZTA